

aisi la

zirimola
IKASTOLEN AISIALDI TALDEA

www.zirimola.eus



AISIOLA BEGIRALE ESKOLA

- 2001 urtean sortu zen.
- Titulazioa:
 - Lanbideko “Haurren eta gazteen aisialdiko jardueren dinamizazioa” ziurtagiri profesionala
 - Eusko Jaurlaritzako “Haur eta gazteen aisialdirako begirale diploma” lortzen da.
- 2020-21 ikasturtean 431 ikasle, 25 talde. Hegoaldeko 4 herrialdeetan.

Aisiolaren **hezkuntza proiektua**, Ikastolen Elkartearen hezkuntza markoan oinarritzen da

- Proiektu hezitzailea eta euskalduna da
- Kalitatezko hezkuntza proiektua da:
 - Formatzaileen prestakuntza bereziki zaintzen da.
 - Begirale profil bati begirako edukiak lantzen dira
 - Komunikaziorako bideak indartzen dira, irakasle zein elkarteko teknikariek.
- Jarduerak era ludikoan proposatzen dira.
- Gure herriko adierazpen kulturalak aintzat hartzen dira
- Jarduerak, bizi-esperientzia aberasgarriak dira
- Pertsonen arteko aurrez-aurreko harremana beharrezkoa da Aisiolan

BEGIRALEAREN IRTEERA PROFILA

- Garapen pertsonalean hazten eta hezten lagunduko dio ikastaroak hezitzaileari
- Haurren aisialdi parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra bultzatzeko tresnak eskuratuko ditu.
- Haurra subjektu aktibo bezala ikusiko du (protagonista), hezitzailea bidelagun izanik.
- Lehiakortasuna baztertu eta kooperazioa moduko balioak sustatzen dira.

IKASTAROAREN ANTOLAKETA ETA EGITURA:

- Bi bloke ditu ikastaroak, guztira **310 ordu**:
 - **Atal teorikoa (150 ordu):**
 - Haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza-jarduerak (60 ordu)
 - Talde eta hezkuntza-prozesuak haur eta gazteen aisialdian (30 ordu)
 - Animazioko teknikak eta baliabideak aisialdiko jardueretan (60 ordu).
 - **Atal praktikoa (160 ordu):**
 - Haur eta gazteen aisialdiko jarduerak dinamizatzeko lanbide-praktika ez laboralen modulua (160 ordu).
 - Praktikak egin ahal izateko 18 urte beteak izan behar dira
 - Aisiolak praktikak eskainiko dizkio ikasleari eta uko egiten badio Aisiolaren proposamenari ikasleak, bere kabuz kudeatzeko ardura hartzen du.
 - Arlo teorikoa bukatu eta 3 hilabeteko epean hasi behar dira praktikak
 - Tutore batek praktikaldiari jarraipena egingo dio eta ikasleari sortzen zaizkion zailtasunetan laguntza eskainiko dio.
 - Bukaeran, memoria bat egin behar du ikasleak

IKASTAROAREN UNITATE FORMATIBOAK

HAURRENTZAKO eta GAZTEENTZAKO HEZKUNTZA-AISIALDIKO JARDUERAK DINAMIZATZEA					
UC1866_2 Haurren eta gazteen aisialdiko jarduerak antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea. (60h.)		UC1867_2 Talde-prozesuetan jardutea, haurtzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio ezaugarriak aintzat hartuta. (30h.)		UC1868_2 Aisialdiko animazioko hezkuntza-teknikak eta baliabideak erabiltzea. (60h.)	
AISIALDI EREDUA	15h	INKLUSIBITATEA	10h	LEHEN SOROSPENAK	10h
GARAPENA	20h			JOLAS-JOKOAK	10h
KONTZIENTZIA PEDAGOGIKOA	5h	PAREKIDETASUNA	10h	EUSKARA - AHOZKOTASUNA	5h.
EUSKARA eta KOMUNITATEA	5h			AUZOLANA	5h.
PROGRAMAZIOA	10h			ADIERAZPENA	10h
EBALUAZIOA	5h	ETNOMOTRIZITAT EA	10h	SORMENA	10h
				NATURA	10h

EGUTEGIA

- Normalean ostiraletan izaten da, 15:30-20:30era. 5 orduko 30 saio dira. Egutegi proposamenaren gainean taldeak egun aldaketak adostu ditzake. Behin ikastaroa hasita, ezin da egunik aldatu.
- Aterpetxean asteburu bat pasatzen da. Covidaren ondorioz azken bi urteetan ez da egin.
- Bi aukera ditu ikasleak:
 - Bi ikasturtetan egitea (Batxi 1 eta 2)
 - Ikasturte bakarrean egitea (Batxi 2, Goi mailako lanbide heziketa)

IKASTAROA EMANGO DUTEN FORMATZAILEEN PROFILA

- Aisialdian formazioa eta esperientzia dutenak
- Euskaldunak eta euskal kulturarekin konprometituak.
- Gazteekin harremanetan trebeak
- Taldea dinamizatzeko gaitasun handikoak.

PREZIOA

150 orduko ikastaro teorikoa eta 160 orduko praktikaldiaren kudeaketa:

- **430 €/ikasleko (Ikastolen Elkarteko ikasleak)**
- **475 €/ikasleko (gainerakoak)**

Gutxienez 10 ikasle behar dira talde osotzeko

COVID19ari AURRE EGITEKO PROTOKOLOA

Ikasle eta formatzaileen osasun baldintzak ziurtatzeko Kontingentzia Planak sortu dira osasun-neurriak betetzeko asmoz. Osasun jarraibideak ikastaroko lehen egunean azalduko dira.

Eskerrik asko!